



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Musikaren eta Dantzaren Historia

USE 2024

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**MUSIKAREN ETA
DANTZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA Y
LA DANZA**

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzean bi aukera daude, A eta B. Bi aukeren artean, bat bakarrik egin behar duzu, ariketa bakoitzean adierazten den bezala.

Argibideetan adierazitakoa baino gehiago eginez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

ATAL GUZTIETAN, alderdi hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa, gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak eta ideien antolamendua.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea

1. Bideo-iruzkina (5 puntu)
Iruzkindu bideo hauetako bat.

A. Wolfgang Amadeus Mozart: "Allegro", obra honetakoa: *Gaueko musika txikia*
sol maiorrean, KV.525 (1787)
Gewandhaus Quartett

B. Manuel de Falla: "Farruca", obra honetakoa: *Hiru puntako kapela* (1913)
Interpretazioa: 2016-06-18
Madrilgo Erkidegoko Orkestra
Koreografia: Antonio Ruiz Soler
Espainiako Ballet Nazionala
Bakarlaria: Francisco Velasco
Dekoratuak eta janzkera: Pablo Ruiz Picasso

Alderdi hauen arabera egin behar duzu iruzkina:

- Elementu tekniko nagusiak (2 puntu): generoa, (nork jotzen edo abesten duen, nork egiten duen dantzari: taldeak, bakarlariak...), sistema (tonala, modala, atonala...), ehundura (homorritmia, kontrapuntua, monofonia...), erritmoa (neurtua, askea, zehaztugabea...), beste batzuk.
- Elementu estetikoak (1 puntu): obraren asmo estetikoak (sentimenduak adieraztea, esperientziak, erlijiositatea, gorputzaren kontrola...).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

MUSIKAREN ETA DANTZAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA MÚSICA Y LA DANZA

- Zer erlazio duen garaiarekin, mugimenduarekin edo egilearekin; zer erlazio duen lehenagoko eta geroagoko korrante, garai edo/eta egileekin. (1 puntu)
- Kokapen kronologikoa, estilistikoa eta formala. (1 puntu)

2. **Gaia** (3 puntu)

Garatu gai hauetako bat dagokion gidoiari jarraituz.

* 250 eta 400 hitz artean, gutxi gorabehera.

A. Musika, dantza eta zinemagintza

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, jatorria, kokapen geohistorikoa.
- Gizarte-ezaugarriak eta teknologia eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Ezaugarri tekniko eta estetikoak: jatorria eta historia. (1 puntu)
- Ondorioak: gai honen elementu nagusiak. (0,5 puntu)

B. Erdi Aroko musika eta dantza

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, lehenagoko eta geroako mugimenduak edo garaiak, kokapen geohistorikoa.
- Gizarte-ezaugarriak eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Ezaugarri tekniko eta estetikoak. (1 puntu)
- Ondorioak: Garai edo mugimendu honen elementu nagusiak. (0,5 puntu)

3. **Azalpen laburrak** (2 puntu) (0,5 puntu/termino)

Termino multzo hauetako bat hautatu eta, ondoren, aukera horretako sei terminoetatik lau bakarrik azaldu beharko dituzu.

* Zuzentzeko orduan, lau baino gehiago ez dira kontuan hartuko. Termino guztiek multzo berekoak izan behar dute.

* 50 hitz, gutxi gorabehera, termino bakoitzean.

A multzoa

- Sergei Diagilev
- otxotea
- tablatura
- big band-a
- bel canto-a
- opera serioa eta opera komikoa

B multzoa

- Commedia dell'Arte
- jauzia/mutxikoa
- kontratenorra
- combo-a
- leitmotiv-a
- musika altua eta musika baxua



MUSIKAREN ETA DANTZAREN HISTORIA

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

2023ko maiatzaren 30eko 76/2023 Dekretuan gai honi buruz dauden ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziazat proba zuzentzeko eta baloratzeko. Proposatutakoen artean, hauek aipatuko ditugu, proposatutako ariketa-ereduan duten garrantzia dela eta:

- Hainbat garai historikotako musikaren eta dantzaren ezaugarri teknikoak eta estilistikoak ezagutzea, adierazpen artistikoak aktiboki entzunez eta ikusiz, eta aniztasun artistikoa aintzat hartuz.
- Musikak eta dantzak hainbat testuingurutan betetzen duten funtzioa zehaztea, adierazpen artistiko horien ezaugarrien eta aldiaren bereizgarriak diren gertakari historiko-estetikoen arteko loturak ezarri.
- Musikaren, dantzaren eta beste adierazpen artistiko batzuen arteko loturak testuinguru analogiko eta digitaletan azaltzea, dituzten baldintzatzaile historiko eta oinarri estetiko komunak identifikatuz eta haien diziplinarteko izaera ulertuz.
- Ondare musikal, eszeniko eta artistikoak garai baten adierazpide gisa duen garrantzia baloratzea, eta ondare hori kontserbatzeko eta hedatzeko jarrera arduratsua eta errespetuzkoa agertzea.
- Musika- eta dantza-ondarearen aberastasuna baloratzea, interpretazioen egokitzapenean eta jatorrizko obrekiko kontrasteen aldi jakin bateko ezaugarriak ezagutzearen bidez.
- Musikaren eta dantzaren historiako konpositore, interprete eta obra nagusiei buruzko ikerketetan iturri analogiko eta digital fidagarriak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu eta berriz lantzeko estrategiak aplikatuz.
- Norberaren kultura-identitateari buruzko gogoeta egitea, egindako ikerketen bidez musika-ondarearen aberastasuna sentikortasunarekin eta errespetuarekin baloratuz.
- Musika- eta dantza ondarearen gai teoriko eta estetikoak modu kritikoan analizatzea sortze-testuinguru jakin batean, iritzi eta ideia propio, informatu eta arrazoituak adieraziz lexiko egokiaz baliatuta.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzean bi aukera daude, A eta B. Bi aukeren artean, bat bakarrik egin behar dute, ariketa bakoitzean adierazten den bezala.

Argibideetan adierazitakoa baino gehiago eginez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

ATAL GUZTIETAN alderdi hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa, gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak eta ideien antolamendua.

1. Bideo-iruzkina (5 puntu)

- Elementu tekniko nagusiak (2 puntu): generoa, (nork jotzen edo abesten duen, nork egiten duen dantzan: taldeak, bakarlariak...), sistema (tonala, modala, atonala...), ehundura (homorritmia, kontrapuntua, monofonia...), erritmoa (neurtua, askea, zehaztugabea...), beste batzuk.
- Elementu estetikoak (1 puntu): obraren asmo estetikoa (sentimenduak adieraztea, esperientziazioa, erlijiositatea, gorputzaren kontrola...).
- Zer erlazio duen garaiarekin, mugimenduarekin edo egilearekin; zer erlazio duen lehenagoko eta geroagoko korrante, garai edo/eta egileekin. (1 puntu)
- Kokapen kronologikoa, estilistikoa eta formala. (1 puntu)

2. Gaia (3 puntu)

* 250 eta 400 hitz artean, gutxi gorabehera.

1. Erdi Aroko musika eta dantza
2. Errenazimentuko musika eta dantza
3. Barrokoko musika eta dantza
4. Klasizismoko musika eta dantza
5. Erromantizismoko musika eta dantza
6. XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako mugimenduak musikan eta dantzan
7. XX. eta XXI. mendeko musika eta dantza

Gai horiek (1-7) egiteko gidoia:

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, aurreko eta geroko mugimenduak edo garaiak, kokapen geohistorikoa.
- Gizarte-ezaugarriak eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Ezaugarri tekniko eta estetikoak. (1 puntu)
- Ondorioak: garaia edo mugimenduaren elementu nagusiak. (0,5 puntu)



8. Jazz-a: musika eta dantza

Gai hau egiteko gidoia:

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, jatorria, kokapen geohistorikoa.
- Gizarte-ezaugarriak eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Ezaugarri tekniko eta estetikoak: jatorria eta historia. (1 puntu)
- Ondorioak: garai edo mugimendu honen elementu nagusiak. (0,5 puntu)

9. Musika, dantza eta zinemagintza

Gai hau egiteko gidoia:

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, jatorria, kokapen geohistorikoa.
- Gizarte-ezaugarriak eta teknologia eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Ezaugarri tekniko eta estetikoak: jatorria eta historia. (1 puntu)
- Ondorioak: gai honen elementu nagusiak. (0,5 puntu)

10. Euskal musika eta dantza tradizionala

Gai hau egiteko gidoia:

- Euskal Herriaren gizarte-ezaugarriak eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Euskal Herriko musika eta dantza tradizional nagusiak. (1 puntu)
- Azken hamarkadako aldaketak euskal gizartean eta nola eragiten duten musika eta dantza tradizionalan. (0,75 puntu)
- Ondorioak: gai honen elementu nagusiak. (0,5 puntu)

11. Musika popularra ("popular music") eta beraren dantzak

Gai hau egiteko gidoia:

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, jatorria, kokapen geohistorikoa.
- Gizarte-ezaugarriak eta zer erlazio duten musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
- Musika popularraren genero nagusiak eta beren historia. (1 puntu)
- Ondorioak: gai honen elementu nagusiak. (0,5 puntu)

3. **Azalpen laburrak** (2 puntu) (0,5 puntu/termino)

* Zuzentzeko orduan, lau baino gehiago ez dira kontuan hartuko. Termino guztiek multzo berekoak izan behar dute.

* 50 hitz, gutxi gorabehera, termino bakoitzean.